



Arartekoaren 2024IR-109-23 Ebazpena, 2024ko otsailaren 20oa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eremuan, euskara ikasteko baimen bati buruzko kexari lotutako esku-hartzeari amaiera ematen diona.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak euskara ikasteko baimen baten inguruan izandako jokabideaz kexatzeko.

Pertsona horrek Hezkuntza Sailean egiten zuen lan, zeinu-hizkuntzako interprete gisa, Gasteizko ikastetxe batean, eta, adierazi zuenez, 2022ko martxoaren 30eko Aginduaren bidez¹ argitaratutako Irale programaren prestakuntza-ikastaroen deialdiari lotutako eskabidea aurkeztu ondoren, eskabidea E ikastaroan (eskola-orduetatik kanpo) eta 4000 ikastaroan (eskola-ordutegiaren barruan) onartu zen, Bizkaian ematekoa, 2023ko urtarrilaren 9an hasita.

4000 ikastaroan behin betiko onartu izana era ofizialean argitaratu zen, eta Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako Euskara Zerbitzuak posta elektronikoz bidalitako lehen komunikazio baten bidez ere berretsi zioten. Jakinarazpen horretan, era berean, zenbait xehetasun eman zizkieten. Geroago, 2022ko abenduaren 13an, beste mezu bat jaso zuen, ikastaroaren datu zehatz guztien berri emateko.

Hala eta guztiz ere, 2022ko abenduaren 29an, telefono-dei baten bidez, irakaskuntzaz kanpoko langileen zerbitzuak jakinarazi zion kexagileari liberazioaren ezeztapena eskatu zela, ez zegoelako irakasle erabilgarririk haren absentzia betetzeko.

Kexagilearen idazkiaren arabera, kexaren sustatzailea saiatu zen aipatutako zerbitzu horrekin harremanetan jartzen, baina ez zuen lortu. Hori dela eta, sindikatu-eskuordearengana jo zuen, eta, azkenean, jakinarazi zioten agindua eman zela Ordezkgagunean Gasteizko lanpostuen ordezkapenik ez eskaintzeko.

2023ko urtarrilaren 4an, kexagileak mezu elektronikoa bidali zuen irakaskuntzaz kanpoko langileen zerbitzura eta langileen kudeaketako zerbitzura, bere egoera argitzen saiatzeko eta, jakin izan zuenez, zerrendan baldintza guztiak betetzen

¹ Agindua, 2022ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deitzen baitira Irale programaren 2022ko udako eta 2022-2023 ikasturteko ikastaroak eta, ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura ezartzen baita.



zituen eta haren lanpostua betetzeko interesa zuen pertsona bat, gutxienez, prest zegoela jakinarazteko.

Auziari buruzko jakinarazpenik jaso ez zuenez, esandako pertsona horri Hezkuntza Sailera jotzeko eskatu zion, interesa berariaz adieraz ziezaion. Dirudienez, hala egin zuen, baina, kexan azaldutakoari jarraiki, erantzun zioten Ordezlagunean iragarri zirela atera beharreko lanpostuak eta 13:30ak arte itxaron beharko zuela lanpostu horien berri jakiteko.

Kexaren sustatzaileak betetzen zuen lanpostua ez zen Ordezlagunean eskaini, eta, beraz, azkenean, kexagilearen ordezkapena betetzeko interesa zuen pertsonari beste lanpostu bat esleitu zioten.

Kexa-idazkian, interesdunak adierazi zuen ez zegoela ados Hezkuntza Sailak hizpide darabilgun auzia kudeatzeko erabilitako moduarekin eta horrek eragin zizkion zuzeneko ondorio kaltegarriekin.

Lehenik eta behin, azpimarratu zuen 4000 ikastaroan parte hartzeko eskaerak aldeko ebazpena jaso zuela, behin betikoa, eta, beraz, kexagilearen iritziz, ebazpen eman orduko hezkuntza-administrazioak berak egiaztatu beharko zukeen gerora sortuko zen ordezkapena betetzeko aukera, edo bestela, ordezkapen hori bermatzeko neurriak hartu beharko zituen.

Halaber, azpimarratu zuen zerrendan, gutxienez, pertsona bat bazegoela ordezkapena bere gain hartu nahi zuena, eta hala egingo zukeela 2023ko urtarrilaren 5ean eskaini izan balitz, 2023ko urtarrilaren 9tik aurrerako ondorioekin bete beharreko gainerako lanpostuekin batera.

Bestalde, idazkiak 2022. urtearen hasieran egindako ohiz kanpoko zerrenden deialdia² aipatzen zuen. Horren arabera, zerrenda bat sortu zen eta zerrendako horretakoak ere kexagilearen hutsa ordezkatzeko prest egongo ziren. Zerrenda hori 2021-2022 ikasturteari buruzkoa zen, baina kexak zioenez, indarreko zerrendak nahikoak ez zirela eta mota guztietako ordezkapen-beharrei aurre egin behar zitzaizela kontuan hartuta, hezkuntza-administrazioak berriro ireki behar izan zuela aldarrikatu zuen interesdunak.

Azkenik, adierazi zuen ez zegoela ados liberazioaren deuseztatzearen berri telefono dei soil batez eman izanarekin, administrazio-jarduketan berezko

² Ebazpena, 2022ko urtarrilaren 28koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Honen bidez, ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien, zeinu-hizkuntzako interpreteen eta terapeuta okupazionalen ezohiko zerrendak irekitzen dira (2021-2022 ikasturterako).



formaltasunik gabe eta Hezkuntza Sailaren kanal ofizialetan argitaratutako idatzizko egintza batean xedatutakoaren aurka.

2. Horregatik guztiagatik, Arartekoak Hezkuntza Sailera jo zuen, azaldutako inguruabar guztiei buruzko informazioa eskatzeko eta kexaren sustatzaileak emandako argudioei buruzko balorazioa ezagutzeko.

Era berean, informazioa eskatu zuen, Iraleko prestakuntza-ikastaroen deialdien esparruan, hezkuntza-administrazioak oro har egiten dituen prozedurari eta egiaztapenei buruz, lanpostu jakinen bat ordezkatu ahal izango den edo ez zehazteko, bai eta kasu zehatz horretan, gauzatu zituen ordezkapenei buruz ere, eta, azkenik, Ordezlagunea deritzon plataforma erabiliz, 2023ko urtarrilaren 5ean lanpostuak esleitzean kexa sustatu zuen pertsonaren lanpostua ez eskaintzea eragin zuten arrazoiei buruz.

3. Hezkuntza Sailaren erantzuna txosten batean iritsi zen; laburbilduz, honakoak aditzera eman zituen:

- Kexagilea plaza huts bat dauka zeinu-hizkuntzako interprete gisa.
- 2022ko urriaren 21ean, behin betiko onartu zitzaion Iraleren liberazioa, 2023ko urtarrilaren 9tik ekainaren 6ra artekoa.
- Onarpen-ebazpenean adierazi zen liberazioa gauzatuko zela, betiere liberatutako pertsonaren ordezkapena bermatzen bazen.
- Abenduaren 29an, zeinu-hizkuntzako interpreteen zerrendetan ordezeko bat aurkitzeko zailtasunak zirela medio, telefono bidez jakinarazi zioten ezinezkoa zela bere ordezkapena kudeatzea, eta, horrenbestez, liberazioa baliogabetu zioten.
- Interesdunak ez du gai horri buruzko inolako eskaerarik erregistratu. Dena dela, urtarrilaren 9an, urtarrilaren 9an, mezu elektronikoa bidali zion Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari, eta mezu horri arabaei@euskadi.eus helbidetik erantzun zioten, Iraleko deialdiak liberazioaren salbuespen hori jasotzen duela adieraziz.
- Idazkian aipatu den hautagai 'erabilgarria' ez zegoen erabilgarri kexaren sustatzailearen liberazioak hasi behar zuen unean, egun horretan bertan kontratatu baitzuten.



4. Dokumentu horretan adierazitakoa ikusita, erakunde honen iritzira, ezin zen betetzat jo aurreko eskaeran helarazitako lankidetzako eskaera, erantzunean landu ez ziren alderdi jakin batzuei buruzko informazioa eskatzen baitzuen Arartekoak.

Hala jakinarazi zion Arartekoak Hezkuntza Sailari, lankidetzako eskaera berri baten bidez. Bigarren eskaeran, zehazki, honako alderdi hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion:

- Irlako prestakuntza-ikastaroen deialdien esparruan hezkuntza-administrazio horrek oro har egiten dituen prozedura eta egiaztapenak, lanpostu jakin bat ordezkatzea izango den edo ez zehazteko, eta jarduera hori egiteko denbora-esparrua zein den zehazteko.
- Hezkuntza-administrazioak kexaren sustatzailearen kasu zehatzean gauzatutako prozedura eta egiaztapenak, bai eta noiz egin ziren ere.
- Ordezlaguna plataformaren bidez, 2023ko urtarrilaren 5ean egindako lanpostuen esleipenean kexa sustatu zuen pertsonaren lanpostua ez eskaintzea eragin zuten arrazoiak.
- Kexaren sustatzailearen lraleren liberazioa ezeztatzeke erabakia nozi hartu zen, zein organok hartu zuen eta erabaki hori nola bideratu zen.
- 2023ko urtarrilaren 5ean, zeinu-hizkuntzako interprete-lanposturen bat eskaini zen, eta, hala izanez gero, eskaintza hori justifikatu zuten arrazoiak zein izan ziren eta, ondorioz, kexa jarri zuen pertsonak betetako lanpostua eskaintzatik kanpo geratu izanaren arrazoiak zein izan ziren.
- Zeinu-hizkuntzako interpreteen zerrendaren egungo egoera zein den eta hura behar bezala hornitzeko zer neurri aurreikusi den.
- 2022. urtearen hasieran egindako ezohiko zerrenden deialditik sortutako pertsona erabilgarrien zerrendaren gaur egungo helburua zein den.
- Azken zerrenda hori 2022-2023 ikasturtean erabili den zeinu-hizkuntzako interpreteen aldi baterako beharrei erantzuteko.
- Kexaren sustatzaileak gai horri buruzko eskaerarik erregistratu ez duela dioen baieztapenari doakionez, kexarekin batera aurkeztutako dokumentazioaren arabera, 2023ko urtarrilaren 4an kexagileak arabaei@euskadi.eus eta huisgesp@euskadi.eus helbide elektronikoetara bidali zituen mezu elektronikoak jaso ziren eta alde edo moldez izapidetu ziren.



5. Bigarren saialdian, Hezkuntza Sailak bidalitako txostenak ere ez zituen erantzun Arartekoak bidalitako eskaeran berariaz eskatutako alderdi guztiak.

Hain zuzen ere, prozedurari eta egindako egiaztapenei dagokienez, bai oro har, bai kearen xede den kasuan, txostenak ez zuen besterik adierazi, ezpada, lanpostu bat ordezkatu daitekeen ala ez erabakitzea Langileen Kudeaketari dagokiola, eta erabaki hori abenduan hartzen dela.

Era berean, ez zuen adierazi zerk eragin zuen 2023ko urtarrilaren 5eko esleipenean kearen sustatzailearen lanpostua ez eskaintzea, ezta egun horretan zeinu-hizkuntzako interpretearen beste lanposturen bat eskaini zen ere.

Beste alde batetik, ez zuen inolako daturik eman kearen sustatzailearen lraleren liberazioa ezeztatzearen inguruan ere.

Zerrendaren egungo egoerari eta hura behar bezala hornitzeko aurreikusten diren neurriei dagokienez, Hezkuntza Sailak adierazi zuen une horretan ez zegoela langilerik erabilgarri, baina ez zuen aipatu egoera arintzen lagun zezakeen neurririk hartu ote zen.

Horri gagozkiola, adierazi zuen 2022ko urtarrilaren 28ko Ebazpena dela bide argitaratu zen ezohiko deialdiari atxikitako zerrenda 2021-2022 ikasturterako bakarrik eratu zela, eta, beraz, ezin izan zela erabili 2022-2023 ikasturtean.

Beste alde batetik, adierazi zuen 2022ko irailetik aurrera zeinu-hizkuntzako interpretearen 27 lanpostu eskaini zirela, eta horietatik 9 esleitu zirela.

Azkenik, adierazi zuen kearen sustatzaileak bidalitako mezu elektronikoei ere posta elektronikoen bidez erantzun zitzaiela.

6. Hirugarren aldiz, Arartekoak Hezkuntza Sailera jo zuen idazki bat igorrita, eta berriro adierazi zuen ezin zela ontzat jo espediente honetan galdatutako lankidetzaren eskaerari emandako erantzuna, hezkuntza-administrazioak helarazitako informazioak ez baitzuen betetzen eskatutakoa.

Idazki horretan bertan, Arartekoak berriro eskatu zuen aurrekari horietako 4. atalean aipatutako alderdi bakoitzari buruzko informazio espezifikoak, erantzun gabe baitzeuden.



Horretaz gain, Ararteko erakundeak beste alderdi hauei buruzko informazio zehatza ere eskatu zuen:

- Kexaren sustatzailearen lanpostua betetzeko interesdun gisa identifikatu zen pertsonari esleitu zitzaion lanpostua (lanean hasteko data 2022ko irailaren 9koa izan zen), eta zein egunetan eskaini zen Ordezlagunean.
- 2022-2023 ikasturtean esleitutako zeinu-hizkuntzako interpreteen lanpostuen zerrenda, eta lanpostu horiek kasu-kasuan betetzeko zerrenda zehatzak.

7. Azken eskaera horri erantzuteko xedez, Hezkuntza Sailak Arartekoari helarazitako txostenak honela zioen:

- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetara dagokie lanpostu jakin bat ordezkatu daitekeen ala ez erabakitzea. Ordezkapenak egiteko inor erabilgarri dagoen egiaztatu behar dute, eta, hala badagokio, emandako baimena ezin dela erabili jakinarazi behar dute.
- Ordezkapenak egiteko hautagairik dagoen ala ez egiaztatzeke, hautagaien aplikazioa erabiltzen da.
- Iruleren liberazioa daukan langile bat ordezka daitekeen ala ez abenduan erabakitzen denez, urtarrilean ez da beste kudeaketarik egiten, ezta horri buruzko egiaztapenik ere.
- Kexa jarri zuen pertsonaren baimena baliogabetzea abenduan erabaki zen, eta telefonoz jakinarazi zitzaion.
- 2023ko urtarrilaren 5ean, zeinu-hizkuntzako interpretearen espezialitatean bi ordezkapen eskaini ziren, bi-biak Gipuzkoan.
- Kexa jarri zuen pertsonaren lanpostua betetzeko interesa adierazi zuenari esleitutako lanpostua seme-alabak zaintzeko eszedentzian zegoen beste pertsona baten ordezkapena izan zen. Esleipena irailaren 14an egin zen, ondoko epeak aintzat hartuta: irailaren 15etik abenduaren 12ra eta urtarrilaren 9tik martxoaren 10era.
- Zeinu-hizkuntzako interpretearen espezialitateko zerrenda behar bezala hornitzeko, zerrenda hori etengabe zabalik edukitzea erabaki zen; beraz, baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonak edozein unetan egin dezakete bertan sartzeko eskaera.
- Esleitutako lanpostuak birbaremazioaren emaitzak erabiliz eta etengabe zabalik dauden zerrendak baliatuz bete ziren, eta honako hauek dira:

Lurralde historikoa	Hasiera-data	Amaiera-data
Gipuzkoa	2022-09-08	2023-03-10
Gipuzkoa	2022-09-15	---
Bizkaia	2022-09-23	2023-08-31
Bizkaia	2022-09-28	2023-03-10
Bizkaia	2022-10-04	2023-03-10
Bizkaia	2022-10-05	---
Gipuzkoa	2022-10-11	2022-10-10
Gipuzkoa	2022-10-28	---
Araba	2022-12-22	---
Gipuzkoa	2023-01-09	2023-07-31
Bizkaia	2023-01-12	---
Gipuzkoa	2023-02-01	---
Bizkaia	2023-03-09	---

Gogoetak

1.- Prozedurari buruzkoak.

Erakunde honek jakin nahi zuen Hezkuntza Sailak zein prozedura duen ezarrita kexa eragindako kasuaren modukoetan, euskara ikasteko baimenen onuradunak bete gabe uzten dituzten lanpostuak hornitzeko aukerak baloratzeko.

Administrazio publikoak aldez aurretik zehaztutako eta irizpide objektiboetan oinarritutako prozedurei jarraituz garatu behar du bere jardura eta aurrekoetan funtsatuta hartu behar ditu erabakiak, erabaki horiek eragindako pertsonen horren guztiaren berri izan dezaten, eta, horrela, jardura modu erregulatuan eta arbitrariotasun-zantzurik gabe egin dela egiaztatzea izan dadin.

Horixe da euskara-ikastaroak eskatzeko eta emateko prozeduraren kasua, behar bezala araututa baitago deialdi egokietan. Horrela, administrazioak zein interesdunek ezagut ditzakete egin beharreko izapideak, epeak, irizpideak eta esleipen-baldintzak zein diren, erabakiak nola hartu eta adierazten diren eta horien aurka jar daitezkeen errekurtsuak zein diren.

Aztergai darabilgun kexan mahairatutako egoerari dagokionez, ordea, defentsa-erakunde honek behin eta berriz galdetu du lraleko prestakuntza-ikastaroen deialdietan Hezkuntza Sailak oro har egiten dituen prozeduraz eta egiaztapenez, lanpostu jakin bat ordezkatzeko izango den ala ez erabakitzeko. Hala eta guztiz ere, Arartekoak bidalitako lankidetzak eskareei erantzuteko txostenetan adierazi da



egiaztapen horiek Langileen Kudeaketari eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzei dagozkiela, eta hautagaien aplikazioaren bidez egiten direla, ez besterik.

Horren ondorioz, ezin izan da berariaz zehaztu horretarako egiten diren izapide zehatzak zein diren, ezta horri buruz ezarritako irizpideak zein diren ere, ez eta, adibidez, hautagaien aplikazioko datuak baliatzeaz gain (aplikazioak zer alderdiri erreparatzen dion ere ez da adierazi), hala berean, egiaztapena egiteko unean lanean ari ziren pertsonak erabilgarri dauden pertsonen zerrendara itzuli ote diren begiratzen den ere.

Era berean, Hezkuntza Sailak ez du zehaztu egiaztapen hori egiten duen organo zehatza zein den, ezta, azken batean, noiz egiten den ere, Arartekoari igorritako txostenetan adierazten baita erabakia abenduan hartzen dela eta berriro ez dela berrikusten.

Azkenik, nabarmendu behar da kexa eragin zuen jarduketa ez dagoela, itxura denez, aldez aurretik ezarritako prozedura bati loturik, eta, gainera, ez dituela administrazio-prozeduraren berezko bermeak eskaintzen. Egin-eginean ere, aldez aurretik idatziz hartutako behin betiko erabaki bat ezeztatzen zuen jarduketa telefono dei baten bidez gauzatu zen. Horren haritik, erakunde honek uste du horrelako jarduera batek esanbidezko eta idatzizko ebazpen bat jakinarazteak ematen dituen bermeak izan beharko lituzkeela, ebazpen horren aurka jar zitezkeen errekursoak ere adierazita.

2.- Kasu honetan hartu den erabakiaren arrazoibideari buruzkoak.

Espediente hau izapidetzean, Arartekoak Hezkuntza Sailari igorritako lankidetzaskaera guztietan, honako hau azpimarratu zen: hezkuntza-administrazioak kexa sustatu zuen pertsonaren kasuan bereziki gauzatu zituen prozedura eta egiaztapenak ez ezik, 2023ko urtarrilaren 5ean, Ordezlagunea plataforma erabiliz, egin zen esleipenean kexagilearen lanpostua ez eskaintzea eragin zuten arrazoiak ere ezagutzeko beharra.

Autu hori garrantzitsua zen, erakunde honen iritziz; izan ere, lanpostu horretan pertsona bat erabilgarri eta interesatuta egonez gero, lanpostu hori betetzeko aukera izan zezakeen, eta kexaren sustatzaileak euskara ikasteko baimenaz gozatzeko aukera izan zezakeen azkenean.

Beste era batera esanda, eskaintza egin ondoren, inork lanpostu horren eskaria egin izan ez balu, lanpostua betetzeko ezintasuna berretsi egingo zen.



Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Sailak erabaki zuen lanpostu hori esleipenean ez eskaintzea. Horretara, Arartekoak, behin eta berriz eskatu arren, ezin izan du jakin zein izan ziren kasu honetan egin ziren kudeaketa zehatzak, kudeaketa horietatik atera ziren berariazko ondorioak, erabaki hori hartu zueneko organoa, erabakia eragin zuten arrazoiak eta, azken batean, erabaki hori izapidetzeko era.

Arrazoibide hori guztia are beharrezkoagoa zen, aintzat hartuta kexaren sustatzaileak berak adierazi zuela une hartan erabilgarri zegoen pertsona batek bere ordezkapena betetzeko interesa agertu ziola, eta, gainera, Hezkuntza Sailak berak ziurtatu duenez, 2023ko urtarrilaren 5eko esleipenean, kexaren sustatzailearen lanpostua ez eskaintzeko erabakitzeaz batera, espezialitate bereko beste bi ordezkapen eskaini zirela egun horretan bertan.

Administrazio-jarduketek behar bezala arrazoituta egon behar dute, eta babes faktikoa zein juridikoa izan behar dute, bai erabakia hartzeko unean, bai jarduketa hori berrikusten denean, dela egoitza judizialean, dela, kasu honetan gertatu den bezala, estatutuaren arabera sortutako eta horretarako ahalmena duen erakunde baten aurrean, Arartekoaren aurrean, alegia, eskubideak defendatzeko prozeduraren esparruan.

Adierazitakoa ikusita, erakunde honek ondorioztatu behar du, auzi honetan, lanpostua ez eskaintzeko jarduketa ez dagoela behar bezala arrazoituta.

3.- Lanpostua betetzeko asmoa izan duen pertsonaren egoerari buruzkoak.

Ebazpen honen aurreko ataletan adierazi den bezala, kexa jarri duen pertsonak ziurtatu du zerrendan erabilgarri zegoen pertsona bat ezagutzen zuela, lanpostuaren baldintza guztiak betetzen zituela eta lanpostua betetzeko interesa zuela. Era berean, Hezkuntza Saileko administrazio-zerbitzuei horren berri eman ziela ziurtatu zuen, eta ordezkapen hori betetzeko erabilgarri eta prest zegoen pertsona bera ere zerbitzu horiekin jarri zela harremanetan interesa adierazteko, baina horrek guztiak ez zuen emaitza onik eman.

Hezkuntza Sailak pertsona horri buruz emandako erantzunean, lehenik eta behin, adierazi zuen ez zegoela erabilgarri kexa sustatu zuen pertsona ordezkatzeko hasi behar zen unean (2023ko urtarrilaren 9an), egun horretan bertan kontratatu baitzuten.

Horri dagokionez, adierazi behar da 2023ko urtarrilaren 9an kontratatu izanak ez duela esan nahi kexa sustatu zuen pertsonaren lanpostua eskaini behar izan zen



unean (hau da, 2023ko urtarrilaren 5ean) erabilgarri ez zegoenik, guztiz kontrakoa baizik, azken data horretan erabilgarri zegoela eta, beraz, zerrendetan izena emanda zegoen lanpostuen artean hauta zezakeela.

Ebazpen honen aurrekarietan ageri den esleitutako lanpostuen zerrenda jasotzen duen taula aztertuz gero, ikus daiteke 2023ko urtarrilaren 9an hasi eta 2023ko uztailaren 31ra arte iraun zuen lanpostu bat esleitu zela. Gaiari buruzko informazio gehiago ez dagoenez, eta Hezkuntza Sailaren txostenean adierazitakoa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke hori izan zela kexa sustatu zuen pertsonaren lanpostua betetzeko interesa zuen pertsonari esleitutako lanpostua.

Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Sailaren ondoko txosten batean adierazi zen pertsona hori seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzia bat ordezkatzan ari zela, lanpostu hori 2022ko irailaren 14an esleitu zitzaioela eta ordezkapenak 2022ko irailaren 15etik 2022ko abenduaren 12ra eta 2023ko urtarrilaren 9tik 2023ko martxoaren 10era zirauela.

Datu horien arabera, eta arestian aipatu dugun taula ikusita, txostenak dakarren lanpostua 2022ko irailaren 15ean hasi zena izan zitekeen; dena dela, lanpostu horrek ez zeukan amaiera-datarik aurreikusita, eta, beraz, kontraesanean dago aipatutako ezaugarriekin.

Era berean, taula horretan agertzen den 2023ko urtarrilaren 9ko hasiera-datadun lanpostuak 2023ko uztailaren 31ra arte irauten zuen, eta, beraz, ez dirudi bat datorrenik ondoko txosten horretan adierazitako amaiera-datekin.

Nolanahi ere den, eta txosten horrek dioenez, pertsona interesduna bi denbora-tarte desberdinetan eszedentzia bat betetzen ari zen datei erreparatuz gero, bi tarteak jarduerarik gabeko aldi batek bereizita, erakunde honek ez du araudian elementurik aurkitu lanpostua betetzeko lehenengo aldia amaitzean, pertsona hori bigarren betetze-aldiari lotuta geratuko zela zehazteko, Hezkuntza Sailak azaldutako edukietatik ondoriozta daitekeenez.

Hain zuzen ere, pertsona hori 2022ko irailaren 15etik abenduaren 12ra artean egon zen kontrataturik, eta egun horretan lan egiteari utzi zion. Beraz, lanerako erabilgarritasuna berreskuratu zuen, eta, horrekin batera, une horretan eskaintzen zen eta bere interesekoa izan zitekeen beste edozein lanpostu lortzeko aukera.

lido horretan, zerrendaren kudeaketa erregulatzen duen araudiak ez du pertsona hori behartzen lanpostuko titularrak eszedentzia berriz eskatzeko aukeraren zain egotera,

eta ez du xedatzen zeinahi inguruabarrengatik lanpostutik kanpo egon eta pertsona berari esleri dakiokkeen aldi baterako betetzeko beharra eragiten duen beste edozein gertakari jazo behar denik.

Esandakoari buruzko xedapen bakarra zerrendaren ohiko funtzionamenduaren salbuespen bat da; hala, norbait pertsona bat ordezkatzeko egon denean eta pertsona hori ordezkatzeko beharra berriro sortzen bada, hurrengo 5 eskola-egunen barruan, ordezkapena lehendik bete duen pertsonak lehentasuna izango du ordezkapen berria egiteko, nahiz eta zerrendan puntuazio handiagoa duten beste pertsona batzuk aurretik egon.

Guztiz ere, xedapen horrek ezin du funtsatu espediente honetan hizpide darabilgun pertsonak 2023ko urtarrilaren 9an hasitako eszedentzia-aldi berria betetzeko betebeharra zuenik. Lehenik eta behin, xedapenak ordezkapen berriaren zain egoteko eskubidea ematen duelako, ez betebeharra, eta, bigarrenik, aldi batetik bestera 5 eskola-egun baino gehiago igaro zirelako.

Aurreko guztiaren ondorioz, kexaren alderdi horri buruzko zehaztasun handiagorik ez dagoenez, argiro ondorioztatu behar da kexaren sustatzailearen lanpostua betetzeko interesa agertu zuen pertsona erabilgarri zegoela lanpostu hori eskaintzea egon zen egunean, baina ezin izan zuela bete, lanpostu hura ez zelako esleipen-plataforman agertu.

4.- Ordezkapenen zerrendari eta langileak hornitzeko hartu diren neurriei buruzkoak.

2022ko urtarrilean, Hezkuntza Sailak zeinu-hizkuntzako interpreteen lan-kontratuko langileen ezohiko zerrendak irekitzeko deialdia egin zuen, 2021-2022 ikasturtean, langileen aldi baterako beharrei erantzuteko. Zerrenda horien zioen azalpenak honako hau zioen:³

“Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan dauden ordezkapen-beharrei aurre egin ahal izateko, zeinu-mintzairaren interprete eta terapeuta okupazionalen ordezkapenak egiteko hautagaien zerrendak irekitzeko beharra antzeman da.

Irekiera horretan, hizkuntza-eskakizunaren baldintza salbuesten da, dauden beharrak ezin baitira bete eskakizun hori betetzen duten hautagaiekin.”

Deialdi horren behin betiko emaitza 2022ko apirilaren 20ko Ebazpenaren bidez erabaki zen⁴.

³ Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko urtarrilaren 28ko Ebazpena, arestian aipatua.

⁴ Ebazpena, 2022ko apirilaren 20koa, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, 2022ko urtarrilaren 28an ireki ziren aparteko zerrendak ikastetxe publikoetan 2021/2022 ikasturtean soilik ordezkapenak egiteko behin betiko onartu eta baztertuen izangaien zerrendak argitara ematen duena (zeinu-hizkuntzako interprete eta terapeuta okupazional).



Ez dakigu zerrenda horietan zenbat pertsona onartu ziren, ez eta zerrenda horiek osatzen zituzten pertsonak zenbat lanpostu bete zituzten ere. Nolanahi ere, prozedura egokia izapidetu ondoren, deialdia egin eta aipaturiko zerrendak eratu zirenez, ondoriozta daiteke zeinu-hizkuntzako interpreteen beharrei aurre egiteko helburuz eratu zirela.

Egia da, deialdian bertan xedatutakoaren arabera, ezohiko zerrenda horien ondorioak 2021-2022 ikasturtearen gainerakora mugatuko zirela; izan ere, berariaz adierazi zenez, 2022ko abuztuaren 31n iraungiko ziren, eta data horren ondoren ezin izango ziren erabili.

Beraz, ezin izango zatekeen kontratatu 2022-2023 ikasturteko langile-beharrak betetzeko ezohiko zerrenda osatzen duten pertsonarik, espediente honetan aztertu den lanpostuaren kasuan bezala.

Hala ere, kontuan hartu behar da espediente honetan aztertutako jarduketa eragin duen funtsezko arrazoia dela, hain zuzen ere, zeinu-hizkuntzako interpretearen espezialitateko beharrei erantzuteko erabilgarri dauden pertsonak falta direla.

Horretarako, Hezkuntza Sailak adierazi du zerrenda etengabe zabalik dagoela, eta baldintzak betetzen dituzten pertsonak edozein unetan sar daitezkeela.

Neurri horrek, ordea, ez dirudi irtenbide eraginkorrik eskaini dionik langile erabilgarrien gabeziari; izan ere, 2020ko otsailetik indarrean egon arren, eta sailak berak baieztatu duenez, eskaintako lanpostu guztiak ezin dira horrela bete.

Ildo horretan, erakunde honek ez daki egoera horri buruz Hezkuntza Sailak zer azterketa egin duen sortutako egoerari aurre egiteko; bada, lankidetzaren eskarari emandako erantzuna zerrenda etengabe zabalik dagoela aipatu besterik ez zuen egin.

Era berean, ez dakigu zergatik hezkuntza-administrazio horrek ez duen ezohiko zerrenden deialdi berririk egin 2022an egindakoaren antzera, edo deskribatutako egoera konpontzeko edo, behintzat, hobetzeko beste neurriren bat aurreikusi edo ezarri ez duen; beraz, azken batean, espezialitate horretako beharrei erantzuteko pertsona nahikorik ez izateak ondorio kaltegarriak izaten jarraituko du.

5.- Erakunde honi laguntzeko eginbeharrari buruzkoak.



Espediente honen izapidetze osoan, Arartekoak hirutan jo du Hezkuntza Sailera, kexan proposatutako gaia aztertzeko garrantzitsutzat jotzen zuen informazio jakina eskatzeko.

Hezkuntza Sailera igorritako idazkietan, bigarrenean eta hirugarrenean adierazi zen Arartekoak ezin zuela betetzat eman lankidetzak-eskaerari emandako erantzuna, hezkuntza-administrazioak bidalitako erantzun-txostenetan ez zelako jaso Ararteko erakundeak eskatutako informazioa.

Azkenik, gorago azaldu den bezala, ezin izan dira ezagutu Arartekoak berariaz galdetu zituen alderdi batzuk, eta, beraz, aurreko ataletan adierazitako gogoetak gorabehera, erakunde honek betegabetzat jo behar du otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua⁵ herri-administrazioei ezartzen dien laguntzeko eginbeharra, honela:

“9.1 Atalean esandako Erakundeetako lhardutze-sailak, eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehenatasunez eta presaz ematea behartuta daude.”

Ondorioa

Hizpide darabilgun kexa aurreko gogoeten arabera aztertu ondoren, Hezkuntza Sailak bidali dituen ondoz ondoko idazkietan agertutako duen jarrera kontuan harturik, eta une honetan, kexaren xede den auziaren inguruko konponbide egokirik lortzea ezinezkoa dela ikusita, Arartekoak erabaki du bere esku-hartzeari amaiera ematea espedientearen, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen babesean, ondoan adierazitako ondorioen bidez:

1. Ez da egiaztatu kexa sorrarazi duen jarduketa alde aurretik zehaztutako administrazio-prozedura bati jarraiki garatu zenik, irizpide objektiboetan oinarrituta eta alderdi interesdunek horren berri jakinda. Bestalde, jarduketa horrek ez ditu administrazio-prozedura baten berezko bermeak ere eduki.
2. 2023ko urtarrilaren 5ean egindako lanpostuen esleipenean, kexaren sustatzailearen lanpostua ez eskaintzeko erabakia ez dago behar bezala arrazoituta.

⁵ 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, Ararteko erakundearen sortu eta arautzekoa.



3. Kexaren sustatzailearen lanpostua betetzeko interesa agertu zuen pertsona erabilgarri zegoen lanpostua eskaintzea egon zen egunean, baina ezin izan zuen lanpostua hautatu, hura ez baitzen esleipen-plataforman atera.
4. Zeinu-hizkuntzako interpreteen aldi baterako beharrei erantzuteko hautagaien zerrenda etengabe zabalik edukitzeko neurriak ez dio, berez, irtenbide eraginkorrik eskaini langile erabilgarrien ezari, baina ez da egoera hori konpon edo hobetu dezakeen ordezeko neurri edo neurri osagarrien ezarpenaren inguruko berririk jakinarazi.
5. Hezkuntza Sailak ez dio behar bezala erantzun otsailaren 27ko 3/1985 Legeak ezartzen duen erakunde honi laguntzeko eginbeharrari.